



Areces

Bilaketa baten memoria
Memoria de una búsqueda
(1937-2014)

*A***reces**

Bilaketa baten memoria

Memoria de una búsqueda

(1937-2014)

Lehen argitalpena: 2015eko otsaila.

EGILEA: Iñaki Egaña, Jimi Jiménez eta Cristina Martín.

ITZULPENEA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzua.

Argazki zaharrak: AUÑAMENDI Artxiboa.

Eguno argazkiak: Aranzadi Zientzia Taldea.

Dokumentuak: Sabino Arana Fundazioa - Abertzaletasunaren Agiritegia, Euskadiko Artxibo Historikoa.

Diseinu eta maketazioa: BIDERA Zerbitzuak (BERRIA Taldea).

Lege gordailua:

Primera impresión: febrero 2015.

AUTOR: Iñaki Egaña, Jimi Jiménez y Cristina Martín.

TRADUCCIÓN: Servicio de Euskara de la Diputación Foral Gipuzkoa.

Fotos antiguas: Archivo AUÑAMENDI.

Fotos actuales: Aranzadi Zientzia Taldea.

Dokumentos: Sabino Arana Fundazioa - Archivo del Nacionalismo Vasco, Archivo Histórico de Euskadi.

Diseño y maquetación: BIDERA Zerbitzuak (BERRIA Taldea).

Depósito legal:

Orain betetzen dira 78 urte tropa frankisten eta *Eusko Gudaroste*ko batailoien arteko borrokak izan zirela Asturiaseko Areces herriaren inguruan. Borroka horietan, ia 200 gudari eta ideologia guztietako miliziano euskaldun hil ziren.

Arecesko batailak 3 egun iraun zituen, eta odoltsua izan zen, ehunka gorpu gelditu baitziren gudu-zeilaian.

Matxinatutako frankisten aurka erori ziren gehienak Eusko Indarra batailoioak eta ANVkoak ziren, baina Amayur batailoiko, EAJko, eta PSOEko Indalecio Prieto batailoiko borrokalari asko ere hil ziren. Arecesen hil zen ere Candido Saseta, Eusko Gudarosteako lehen komandantea.

Baliabide nahiz soldadu aldetik hain desorekatua izan zen bataila hartan parte hartu zutenen memorian gelditu zen Candido Sasetaren agindupean borrokatu zuten gizonen heroismoa.

Agirre lehendakariaren aginduz joan zen Candido Saseta komandantea Areces herrira, Errepublikako armadari laguntza ematera, Oviedo hartu behar baitzen Frankoren tropen eraso gelditzeko; ordurako, Euskadi gehiena frankisten esku zegoen, eta Eusko Gudarosteak eskarmentua zuen gerran, gauza izan baitzen hainbat fronte egonkortzeko eta errebeldeak geldiarazteko.

Saseta komandantearen gorpua bakar-bakarrik lurperatu zen, eta 2008. urtean berreskuratu eta aberri-ratu zen.

Borrokan hil ziren gainerakoen gorpuak hainbat modutan hilobiratu ziren: batzuk leku desberdinetan lurperatu ziren; beste batzuk lekuan bertan gelditu ziren; eta beste batzuk, berriz, Derio eta Gernikara eraman ziren geroago. Aranzadi Zientzia Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak aginduta, hainbat koka-leku identifikatu ditu, eta baita gorpuak aurkitu ez direnen izenak ere. Ahal den neurrian, liburu honekin omenaldia egin nahi diegu ausardiaz eta idealez betetako gazte haiei, beraien euskal herria utzi zutelako Europaren jabe egiten ari zen faxismoaren kontra borrokatzeko.

Gipuzkoako diputatu nagusi naizen aldetik, niretzat ohorea eta betebeharrak morala da omenaldi honetan parte hartzea.

Martin Garitano

Gipuzkoako diputatu nagusia

Se cumplen ahora 78 años de los combates que tuvieron lugar en las proximidades de la localidad asturiana de Areces entre las tropas franquistas y los batallones de Eusko Gudarostea y en los que perecieron casi dos centenares de jóvenes gudarís y milicianos vascos de todas las ideologías.

La batalla en Areces duró 3 días, y fue cruenta, dejando en el campo de batalla cientos de cuerpos.

Los caídos frente a los insurrectos franquistas pertenecían en su mayor parte al batallón Eusko Indarra, de ANV, aunque también los batallones Amayur, del PNV y el Indalecio Prieto, del PSOE, sufrieron fuertes bajas. En Areces perdió la vida también Cándido Saseta, el primer comandante de Eusko Gudarostea.

El heroísmo de los hombres comandados por Cándido Saseta quedó en la memoria de cuantos asistieron a la batalla, desigual en medios y soldados.

Cándido Saseta acudió a Areces por órdenes del lehendakari Agirre a fin de colaborar con el Ejército de la República en la toma de Oviedo y frenar así la ofensiva de las tropas de Franco cuando gran parte de Euskadi ya había caído en sus manos y el Eusko Gudarostea se había ya fogueado en la guerra y había conseguido estabilizar varios frentes y parar a los rebeldes.

El cuerpo del Comandante Saseta, enterrado en solitario, fue recuperado en 2008 y repatriado.

El resto de combatientes fallecidos sufrió diferente suerte: algunos fueron enterrados en distintos puntos, otros quedaron sobre el terreno y otros fueron trasladados con posterioridad a los cementerios de Derio y Gernika. La Sociedad de Ciencias Aranzadi, por encargo de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, ha identificado diferentes emplazamientos y los nombres de aquellos combatientes cuyos cuerpos no han sido localizados. Este libro es parte del debido homenaje que merecen aquellos jóvenes que, armados de valor e ideales, dejaron su tierra vasca para combatir al fascismo que se apoderaba de Europa.

Para mí, en calidad de Diputado General de Gipuzkoa, es un honor y una obligación moral participar en este homenaje.

Martin Garitano

Diputado General de Gipuzkoa

Alkatearen sarrera

Kontatu ez dizkiguten historia asko dauzkagu berreskuratzeko. Historia, istorio eta mito izatetik, egia, justizia eta erreparazioa ekarriko dituen Historia behar dugu.

Asturiaseko lurretara Donostiatik eta Euskal Herritik joandako gudari eta milizianoek beti izan dute lekua gure bihotzetan. Historian ez, ordea. Bada garaia justizia egiteko eta H handiarekin idatzitako Historiaren zati direla aitortzeko.

Arecesetik Saseta komandantearen gorpua eka-
rri ahal izan zenetik, gure bihotzen taupadak indartsua-
goak dira. Gure gudari eta milizianoak herrira ekartzeko
esperantza izan dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin
batera, Donostiako Udaletik ikerketa eskatu genuen
Areceseko lurretatik justizia ekartzeko Euskal Herrira. Bi
urteko ikerketa luzearen ostean, mitoa Historia bihurtu
dugu, baina justizia oraindik ezin izan dugu egin.

Demokratikoki aukeratutako gobernu errepubli-
karra eta Euskal Herria defendatu zituen armadak au-
rre egin zien indar frankistei Asturiaseko lurretan 1937ko
otsailaren 21etik 23ra. Liburu honek bataila mitiko eta
garrantzitsu haren inguruko azterketaren emaitzak jaso-
tzen ditu. Argi izpia izan da senide askorentzat, gorpuak
non dauden jakin ahal izan dutelako. Zoritxarrez, 82 gor-
pu, 28 gipuzkoarrenak tarteko, oraindik non diren jaki-
terik ez dugu lortu. Baina hau ez da bidearen amaiera,
Egia, justizia eta errekonozimendua lortzeko bidea luzea
izanagatik, bukaeraraino egiteko prest gaudelako.

Gutxienez 188 gudari eta milizianok eman zuten
bizitza gure herriarengatik, askatasunagatik eta errepu-
blikagatik Areceseko lurretan. Haien ausardiak bihotza
ukitu zigun. Eta, hala ere, ezin izan genituen hiletak egin,
agurrik eman; frankismoak ez duelako bihotzik.

78 urte geroago, ordea, agurrerako eta ohorerako
garaia iritsi da. Liburu honek aitortpen eta ohorerako
balio izatea espero dut, bihotzez.

Juan Karlos Izagirre Hortelano

Donostiako alkatea

Introducción del Alcalde

Tenemos muchas historias que recuperar,
historias que no nos han sido contadas. Necesitamos
una Historia que deje de ser historia, fábula y mito, y nos
traiga verdad, justicia y reparación.

Los gudarís y milicianos que fueron a Asturias
desde Donostia, y toda Euskal Herria, siempre han tenido
un lugar en nuestros corazones. No así en la historia. Y
ya es hora de hacerles justicia y reconocerles que forman
parte de la Historia con mayúsculas.

Desde el día en que fue posible traer el cuerpo del
comandante Saseta desde Areces, nuestros corazones
laten con más fuerza, ya que nos ha permitido albergar
la esperanza de trasladar a aquellos gudarís y milicianos
a nuestro pueblo. Así, el Ayuntamiento de Donostia/
San Sebastián, junto a la Diputación Foral de Gipuzkoa,
solicitó que se abriera una investigación con fin de poder
traer, hacer justicia desde aquellas tierras asturianas
hasta Euskal Herria. Tras una larga investigación de dos
años, hemos conseguido que el mito se convierta en
Historia, pero aún no hemos logrado que se haga justicia.

Aquel ejército que defendía a Euskal Herria y a un
Gobierno republicano democráticamente elegido tuvo que
enfrentarse a las fuerzas franquistas en tierras asturianas,
entre el 21 y 23 de febrero de 1937. Este libro recoge las
conclusiones del estudio realizado sobre aquella mítica
y trascendental batalla. Ha supuesto un rayo de luz para
muchos familiares, ya que les ha permitido saber dónde
se encontraban algunos de los cuerpos sepultados.
Lamentablemente, aún no hemos podido saber dónde se
encuentran 82 cuerpos, 28 de ellos guipuzcoanos. Pero
este no es el final del camino, porque, aunque el camino
de la verdad, la justicia y el reconocimiento es largo,
estamos dispuestos a llegar hasta el final.

Al menos 188 gudarís y milicianos dieron sus
vidas por nuestro pueblo, por la libertad y por la República
en Areces. Su valentía conmovió nuestros corazones.
Sin embargo, no pudimos celebrar sus funerales ni
despedirles, porque el franquismo no tuvo corazón.

Pero 78 años después, ha llegado la hora
de despedirles con amor y honor. Espero, de todo
corazón, que este libro contribuya al reconocimiento y al
resarcimiento de la justicia.

Juan Karlos Izagirre Hortelano,

Alcalde de Donostia

Aurkibidea • Índice:

Hitzaurrea	
Prólogo	5
Aurkibidea	
Índice	9
Sarrera	
Introducción	11
Testuinguru historikoa	
Contexto histórico	17
Ikerketa historikoa	
La investigación histórica	19
Candido Sasetaren gorpuzkia berreskuratzea	
La recuperación de los restos de Cándido Saseta	21
Esku hartzea Pradón de los Vascos eremuan	
La intervención en el Pradón de los Vascos	26
Puntu eta jarrai	
Punto y seguido	31
1. ERANSKINA	
ANEXO 1	33
2. ERANSKINA	
ANEXO 2	34
3. ERANSKINA	
ANEXO 3	48
4. ERANSKINA	
ANEXO 4	56
5. ERANSKINA	
ANEXO 5	71

Sarrera

1936ko uztailako estatu-kolpearen ondorioz piztu zen gerra zibilak hurrengo urteko udazkenara arte iraun zuen Penintsulako iparraldean. Kantauriko itsasertzean, Gipuzkoa gatazka-lurraldea izan zen, Errepublikari leial mantentzen ziren indarren eta matxinatu frankisten arteko borrokalekua. 1936ko udaren bukaeran, posizio errepublikanoak Irundik Elgoibarreraino galdu eta gero, frontea egonkor geratu zen Intxorta mendiek markatzen zuten lerro naturalean.

Bien bitartean, Gobernu zentralak Euskal Autonomia Estatutua onartu zuen, eta berehala ezarri zen artean Errepublikaren agintea mantentzen zen zonan: Bizkaian, Gipuzkoako mendebaldeko zerrendan eta Arabako ipar-zerrendan. Orduko Santander probintziako eta Asturiasko Printzerriko erakundeek ere, Oviedo Printzerriko hiriburuak izan ezik, beren leialtasuna erakutsi zioten Errepublikari, eta denek –euskaldun, kantabriar zein asturiarrek– gerra-politika mantendu eta bi armada mobilizatu zituzten, euskalduna eta errepublikanoa, lehengoa bigarrenaren mende.

1936ko urritik hasita, euskal Gobernu autonomoak, Jose Antonio Agirre lehendakaria buru zuela eta estatu-kolpeari uko egin zioten indar guztien babesarekin, 18 eta 45 urte bitarteko 60.000 gizon inguru indar militarretan parte hartzera deitu zituen, eta gerra-administrazio bat zein hegoaldetik eta ekialdetik indar frankistek setiatuak zeukaten lurraldea kudeatu zituen.

• Introducción

El golpe de Estado de julio de 1936 provocó una guerra civil que se prolongó en el norte peninsular hasta el otoño del año siguiente. En la costa cantábrica, Gipuzkoa fue territorio de disputa entre las fuerzas leales a la República y los sublevados franquistas. A finales del verano de 1936, tras la pérdida de las posiciones republicanas desde Irún hasta Elgoibar, el frente se estabilizó en la línea natural que marcaban los Intxortas.


Mientras tanto, el Gobierno central aprobó el Estatuto de Autonomía vasco que tuvo una aplicación inmediata en la zona que aún mantenía la autoridad de la República: Bizkaia, la franja oeste de Gipuzkoa y la norte de Araba. Las instituciones de la entonces provincia de Santander y el Principado de Asturias, con la excepción de su capital Oviedo, también mostraron su lealtad a la República, manteniendo todos ellos, vascos, cántabros y asturianos, una política de guerra que movilizó a dos Ejércitos, el vasco y el republicano, el primero supeditado al segundo.

Desde octubre de 1936, el Gobierno autónomo vasco, presidido por el lehendakari José Antonio Aguirre, con el apoyo de todas las fuerzas que habían rechazado el golpe de Estado, llamó a filas a cerca de 60.000 hombres entre 18 y 45 años, y gestionó una administración de guerra y un territorio cercado por el sur y el este por fuerzas franquistas, y bloqueado por mar.



• Asturias 1937ko otsaila. Gudari talde bat, Jose Estornés tartean (iturria: AUÑAMENDI Artxiboa).

• Asturias febrero 1937. Grupo de gudaris, Estornés entre otros (fuente: Archivo AUÑAMENDI).



• Asturias 1937ko otsaila. Estornés eta Jose Antonio Zabaleta
(iturria: AUÑAMENDI Artxiboa).

• Asturias febrero 1937. Estornés y José Antonio Zabaleta
(fuente: Archivo AUÑAMENDI).

Euskal lurraldea eta, hedapenez, kantabriar eta asturiar lurraldeak konkistatzeko frankistek egindako erasoaldia 1937ko martxoaren bukaeran hasi zen, Durangoko bonbardaketarekin batera. Bien bitartean, Intxorta mendietako frontea egonkortu zenetik, bi armadek, errepublikanoak eta matxinatuak, elkarri aurka egin zioten zenbait lekutan: Matxitxako lurmuturraren aurrean egin zen itsas batailan, Legutión eta Otxandion..., eta baita Asturiasen ere. Bi aldiz, euskal indarrek parte hartu zuten, hain zuzen ere 1936ko urrian eta 1937ko otsailean.

1937ko otsailean Errepublikak frankismoaren aldekoa zen Oviedo okupatzeko Asturiasetik, Kantabriatik eta Bizkaitik iritsitako hainbat konpainiarekin batera bultzatu zuen erasoaldiak huts egin zuen, Asturiasko hiriburura iristeko helburua ez zelako lortu. Errepublikako konpainiek atzera egin behar izan zuten Nalón ibaiaren ertzean, Regueras herriko udal-barrutian. Euskal batailoiek kanpainako ospitale bat antolatu zuten Areces herrian, eta bertara eraman zituzten beren zaurituak. Ospitalearen inguruetan, borroka bortitzak izan ziren. Azkenik, soldadu frankistek eraso egin zioten Areces herriari. Horren ondorioz, hamarnaka hildako izan ziren, eta abandonatuak utzi zituzten etsaien sutatik ihes egiten zutenek.

Gertaera haiek astindu egin zuten Bizkaian errefluxiatuta zegoen euskal gizartea, astebete lehenago Bilboko kaleetan bere konpainiak agurtu zituen eta. Are hunkipen handiagoa sortu zen ezagutzera eman zenean ehunka hildakoren artean Candido Saseta zegoela, espedizioaren arduradun eta bigarren brigadako burua,

La ofensiva franquista para conquistar el territorio vasco, y por extensión el cántabro y el asturiano, comenzaría a finales de marzo de 1937, con el bombardeo de Durango. En el intervalo previo, desde la estabilización del frente en los Intxortas, ambos ejércitos, republicano y sublevado, se desafiaron en varios escenarios. En batalla naval frente al cabo de Matxitxako, en Legutión y Otxandio... y en Asturias. En dos ocasiones, ambas con presencia vasca, en octubre de 1936 y en febrero de 1937.

La ofensiva republicana de febrero de 1937 sobre Oviedo, franquista, combinada con diversas compañías procedentes de Asturias, Cantabria y Bizkaia, fue un fiasco militar, ya que el objetivo de alcanzar la capital asturiana fracasó. Las compañías republicanas tuvieron que retroceder en las orillas del Nalón, en el término municipal de Las Regueras. Los batallones vascos establecieron un hospital de campaña en la localidad de Areces, a donde llevaron sus heridos y en cuyas cercanías tuvieron lugar violentos combates. Finalmente, las tropas franquistas asaltaron Areces, provocando decenas de muertos que fueron abandonados por quienes huían del fuego enemigo.

Aquellos episodios conmocionaron a la sociedad vasca refugiada en Bizkaia que había despedido a sus compañías una semana antes desde las calles de Bilbao. Más aún cuando se supo que entre los varios centenares de fallecidos figuraba el responsable de la expedición y jefe de la segunda brigada Cándido Saseta, así como milicianos de todas los grupos políticos y sin-



- Llera eta Valduno arteko egurrezko pontoaia, egungo hormigoizko zubia eraiki baino lehen zegoena. (Iturria: Asociación La Piedriquina).
- Pontón de madera que unía Llera y Valduno con anterioridad a la construcción del puente de hormigón. (Fuente: Asociación La Piedriquina).



• Saseta eta Apraiz kapitaina. Atzean, Areces, Saseta hil zuten lekua. (Iturria: AUÑAMENDI Artxiboa).

• Saseta y el capitán Apraiz. Al fondo, Areces, donde murió Saseta. (fuente: Archivo AUÑAMENDI).

eta baita Errepublikaren aldeko talde politiko eta sindikal guztietako milizianoak ere. Lehenengo brigadako burua ere, Benito Reola Hermosilla, zaurituta suertatu zen Asturiasen jarraitu zuten borroketan.

1937ko ekainean, armada frankista, borroka bortitzak egin eta Gernika herri enblematikoa bonbardatu eta gero, Bilbon sartu zen. Bi hilabete geroago, Santanderren sartu ziren, eta urte bereko urrian, Gijonen. Okupazioak itsasontzietan frantses kostalde atlantikora ihes egin zuten milaka gizon eta emakumeren exodo jendetsua eragin zuen. Gehienak Kataluniatik barrena itzuli ziren eremu errepublikanora 1939ko martxora arte, orduan bukatu baitzen gerra betiko, armada frankistaren garaipenarekin. Eta, hala, beste exodo bat hasi zen.

Franco 1975. urtean hil arte iraun zuen diktadurara gogorra, espetxeak soldadu errepublikanoen mukuru beteta, eta Errepublikari leial mantendu ziren buruzagi politikoak erbestean zeudela, oroitzapenak eta memoria zaintzea izan ziren garaituen defentsa bakarra. Oroitzapen horien artean, lurraldearen eta erakunde leialen defentsa egitean izandako gertaera adierazgarrienak goraipatu eta gorpuztu egin ziren, egunen batean, diktadura desagertu eta gero, berreskuratu eta merezi zuten tratamendua emateko itxaropenaz.

Regueras herrian gertatutakoak, Nalón ibaiaren etzetan eta Arecesen izandakoak, eta borroka haietan parte hartu zuten izenak izan ziren duintasunez tratatzeko esperoan geratu ziren gertaera horietako batzuk. Frankismoaren garaian jadanik, eta klandestinitatean, senide batzuk gerturatuak ziren gertaerak izan ziren lekura, garai hartako kontaketa lapurtu ez zuenean manipulatu egin zuen egia horren zatiak aurkitu nahian. Erbestean, hainbat agiri eta kontaketa 1937ko otsaileko gertaera haien inguruko interesa mantendu eta oroitzapena indartu zuten.

dicales que apoyaban a la República. También el jefe de la primera brigada, Benito Reola Hermosilla, resultaría herido en los combates que continuaron en Asturias.

En junio de 1937 las tropas franquistas, después de violentos combates y el bombardeo de una población tan emblemática como Gernika, entraban en Bilbao. Dos meses después en Santander y en octubre de ese mismo año en Gijón, provocando un éxodo masivo de decenas de miles de hombres y mujeres que huyeron en barcos hacia la costa atlántica francesa. La mayoría de ellos se reincorporó por Cataluña a zona republicana hasta marzo de 1939, cuando concluiría definitivamente la guerra con la victoria del Ejército franquista. Y entonces comenzó un nuevo éxodo.

Con una férrea dictadura que se prolongó hasta la muerte de Franco en 1975, las cárceles repletas de soldados republicanos, y con los dirigentes políticos que habían mantenido su lealtad republicana en el exilio, el recuerdo y la preservación de la memoria fueron la única defensa de los derrotados. Entre estos recuerdos, la exaltación de los acontecimientos más reseñables en la defensa del territorio y de las instituciones fieles tomaron cuerpo con la esperanza de que un día, tras la desaparición de la dictadura, pudieran ser rescatados y recibirían el tratamiento merecido.


Los hechos de las Regueras, las orillas del Nalón, Areces y los nombres que jalonaron aquellos combates fueron uno de estos acontecimientos a la espera de ser tratados con dignidad. Ya durante el franquismo y en la clandestinidad, algunos familiares se habían acercado al escenario, intentado encontrar fragmentos de esa verdad que el relato de la época había manipulado, cuando no hurtado. En el exilio, diversos documentos y narraciones habían mantenido el interés y fortalecido la memoria de aquellos sucesos de febrero de 1937.



- Gudariak Asturiasen. 1937ko otsaila. (Iturria: AUÑAMENDI Artxiboa).
- Gudarís en Asturias. Febrero de 1937 (fuente: Archivo AUÑAMENDI).



- Gudariak otsailaren 20an egunez prestatu eta gauean desagertu zen zubia (Iturria: AUÑAMENDI Artxiboa).
- Puente construido el día 20 de febrero por los gudaris y que desapareció esa noche. (Fuente Archivo AUÑAMENDI).



• Saseta komandanteak Agirre lehendakari-
idatzitako eskutitza (Iturria: Sabino Arana Fundazioa -
Abertzaletasunaren Agiritegia).

• Carta del Comandante Saseta al Lehendakari
Agirre (Fuente: Sabino Arana Fundazioa - Archivo
del Nacionalismo Vasco).

XXI. mendea hasita zegoela, oroimenaren alde-
ko zenbait elkarteren eta gerrako fronte hartan desager-
tu zirenen ondorengoen bultzadaz, Arecesen oroimenak
hautsa kendu zien oroitzapenei, eta egia eta hainbeste
hamarkadatan gorderik mantendu zirenen gorpuzkiak
berreskuratzeko ekimen bihurtu zuen. Euskal erakunde
batzuek parte hartu zuten eginkizun horretan, eta par-
te-hartze horrekin batera, taldeen eta senideen adorea
lagungarria izan zen egia argitzeko.

Inoiz trazu osoak izango ez dituen egia da, bai-
na, isiltasun horren biktima bezala eskubideak zapaldu
zitzazkienei egindakoa zuzentzeko balio izango du: bizia
galdu zutenen, zaurituak izan zirenen, presondegi edo
espetxean egon zirenen senideak eta lagunak.

Azalpen-lerro hauek horretarako balio izatea
nahiko genuke, eta baita gizabanakoarena eta gizatal-
dearena den gure giza kronikako une baten inguruko
kontakizunari era askotako ezaugarriak gehitzeko ere.

Iniciado ya el siglo XXI, con el impulso de diversas
asociaciones memorialísticas y el de los descendientes de
quienes habían desaparecido en aquel frente bélico, la me-
moría de Areces desempolvó los recuerdos para convertir-
los en iniciativas para recuperar la verdad y los restos que
habían permanecido ocultos durante tantas décadas. La
implicación de varias instituciones vascas en esta tarea,
junto al tesón de grupos y familiares, abrió puertas antes
cerradas y ayudó al esclarecimiento de la verdad.

Una verdad que jamás llegará a tener trazos
completos pero que servirá para la reparación de quie-
nes vieron conculcados sus derechos como víctimas de
ese silencio: familiares, compañeras y compañeros de
quienes perdieron la vida, fueron heridos, sufrieron pri-
sión o cárcel.

Deseamos que estas líneas explicatorias sirvan
para ello y, de la misma manera, para aportar rasgos di-
versos al relato de una página de nuestra crónica huma-
na, particular y colectiva.

Testuinguru historikoa

Euskal batailoiak 1936ko urrian abiatu ziren Asturiasera lehenengo aldiz, orduko hartan komunismoa-ri lotutakoek eta *Juventudes Unificadas* izenekoek bakarrik parte hartu bazuten ere. Geroago *Largo Caballero*, *Rosa Luxemburgo*, *Stalin* eta *Larrañaga* izenak izango zituzten batailoietakako boluntarioak izan ziren eta, artean Euzko Gudarostea osatu gabe zegoenez gero, *Rusia* izenaz joan ziren Asturiasera. Guztira, ia zazpiehun miliziano izan ziren Trubian kuartel nagusia izan eta matxinatutako indarren erasoak pairatu zuen herri horren defentsan parte hartu zutenak.

1937ko otsaileko operazioek, aldiz, beste izaera bat izan zuten, Euzko Jauralaritzaren bermea izan baitzuten. Agirre lehendakariak bere batailoietakako buruzagiekin kontsulta bat egin eta gero, Iparraldeko Armadako Estatu Nagusiak Oviedoko setioari aurka egiteko eskatutako kupoa bidaltzea erabaki zuen –gogoz bestera, adierazi zuen bezala–, hiri horretan frankistek beren posizioak defendatzen jarraitzen baitzuten.

Eraso errepublikanoan hainbat brigadak parte hartu zuten, eta horietako bi euskal brigadak ziren. Lehenengo Euskal Brigada *Perezagua* (PCE), *Isaac Puente* (CNT) eta *Rusia* (JSU) izeneko batailoiek osatuta zegoen, Asturiasko agente-batailoi batekin batera. Brigada horretako buruzagia Benito Reola zen, eta unitatearen helburua San Claudio sektorean zegoen, Oviedo hiritik gertueneko sektorean alegia, Pando mendatean.

Bigarren Euskal Brigada *Amayur* (PNV), *Euzko Indarra* (ANV) eta *Prieto* (UGT) batailoiek eta *Ariztimuño* (PNV) batailoiko metrailadore-konpainia batekin osatuta zegoen. Brigadako buru Candido Saseta zen, Euzko Gudarosteko (EAJ-ko miliziak) komandantea, eta hartu beharreko helburuak Parra eta Murio izeneko gune estrategikoak ziren; horrez gain, Reguerasko iparraldean santandertar brigada batekin elkartzea lortu behar zuten.

1937ko otsailaren erdialdean, euskal espedizioa Asturiasera iritsi zen, Eduardo Vallejo miñoiaren kapitainaren agintaritzapean, eta kuartel nagusia, 1936ko urrian bezala, Trubian kokatu zuten. Brigadetako buruzagiek Báscones eta Caldas inguruko herrietan finkatu ziren, eta agente-postua, berriz, Santa Maria de Graon. Lehenago, gerra-material ugari iritsi zen Asturiasera, Bilbotik bidalia.

Euskal batailoiek borrokari ekin zioten 1937ko otsailaren 21ean, goizeko 4ak jota zirela. Esleitu zitzairen helburu taktikoa Pando izenaz ezaguna zen muinoa hartzea zen, soldadu frankisten eta Estatuko gainerako guztiaren arteko komunikazioak eteteko. Sektore hartan konpainia komunistez eta anarkistez osatuta zeuden tropa euskaldunek erdietsi zuten lehenengo helburu hori, eta atzeguardiarekiko komunikazioa moztu zieten etsaiei.

Contexto histórico

La primera ocasión en que batallones vascos se desplazaron a Asturias fue en octubre de 1936, aunque en esa oportunidad únicamente lo hicieron los de adscripción comunista y de las juventudes unificadas. Fueron voluntarios de los batallones que luego llevarían los nombres de *Largo Caballero*, *Rosa Luxemburgo*, *Stalin* y *Larrañaga* que, aún sin formarse el Ejército vasco, acudieron a Asturias bajo el nombre de *Rusia*. En total fueron casi setecientos milicianos que tuvieron en Trubia su cuartel general, participando en la defensa de esta población atacada por las fuerzas sublevadas.

Las operaciones de febrero de 1937 tuvieron, en cambio, otro carácter por cuanto fueron avaladas desde el Gobierno vasco. Tras una consulta de Aguirre con los responsables de sus batallones, el lehendakari, a su pesar según manifestó, decidió enviar el cupo exigido por el Estado Mayor del Ejército del Norte para abordar el cerco sobre Oviedo, ciudad en la que los franquistas seguían defendiendo sus posiciones.

La ofensiva republicana se preparó con varias brigadas, dos de ellas vascas. La Primera Brigada vasca estaba compuesta por los batallones *Perezagua* (PCE), *Isaac Puente* (CNT) y *Rusia* (JSU) junto con un batallón de mando asturiano. Al mando de esta brigada se hallaba Benito Reola y el objetivo de la unidad se encontraba en el sector de San Claudio, el alto de Pando, más cercano a la ciudad de Oviedo.

La Segunda Brigada vasca la componían el batallón *Amayur* (PNV), *Euzko Indarra* (ANV), *Prieto* (UGT) y una compañía de ametralladoras del batallón *Ariztimuño* (PNV). Al mando de la brigada se encontraba Cándido Saseta, comandante del Euzko Gudarostea (milicias del PNV), y los objetivos a tomar eran los puntos estratégicos de La Parra y El Murio y lograr la conexión con una brigada santanderina al norte de Las Regueras.

A mediados de febrero de 1937 la expedición vasca llegó a Asturias al mando de Eduardo Vallejo, capitán de miñones, ubicando su cuartel general, como en octubre de 1936, en Trubia. Las planas mayores de las brigadas se establecieron en las cercanas poblaciones de Báscones y Las Caldas y el puesto de mando en Santa María de Grao. Previamente, había llegado a Asturias procedente de Bilbao una gran cantidad de material bélico.

Los batallones vascos entraron en combate poco después de las 4 de la mañana del 21 de febrero de 1937. El propósito táctico que tenían asignado era la toma del promontorio conocido como El Pando para cortar las comunicaciones de las tropas franquistas con el resto del Estado. Este primer objetivo fue logrado por las tropas vascas, compuestas en este sector por compañías comunistas y anarquistas, cortando al enemigo las comunicaciones con su retaguardia.

Hurrengo egunean, UGT, EAJ eta ANV alderdiek bidalitako konpainiei jarduteko txanda egokitu zitzairen. Operazioa honetan zetzan: Nalón ibaia gurutzatu behar zuten, Arecesko lubakietan babestuta zeuden etsaiak ezustean harrapatzeko. Baina, ordua iritsi zenean, hutsegiteak gertatu ziren koordinazioan, besteak beste Nalón ibaiaren gaineko behin-behineko zubi baten falta. Eta hori izan zen tragediaren sorrera. Eztabaida gogor baten ondoren, euskal brigadak zotz egin zuen, ea posizioa nork gurutzatuko zuen. *Euzko Indarra* batailoari egokitu zitzaion, eta hala egin zuten gizonak txandaka, bat-batean egindako gabarra batean.

Indar frankistak etsaiek Nalón ibaia noiz gurutzatuko zain zeuden, eta, hala, *Euzko Indarra* batailoiko gudarrien zeharkaldia *satarte* bilakatu zen haientzat. ANVko milizianoak hamarnaka geratu ziren su gurutzatuan harrapatuta, eta saialdian hil ziren. Hala ere, Arecesko posizioa hartu zuen *Euzko Indarra* batailoiak, *Amayur* batailoaren laguntzaz. Denbora laburrean izan zen, ordea, konpainia frankistek berreskuratu egin baitzuten, eta borroka batean egoera beldurgarrietako bat eragin zuten: atzera egite nahasia, orduko hartan miliziano euskaldunena. Egoera hartan, bizia galdu zuen Candido Sasetak.

Hilaren 22an, euskal brigadak Valduno okupatu zuen, eta aurrera egin zuten San Claudio aldera. Hor gertatu ziren kanpaina horretako borrokarik bortitzenak. Hildakoen kopurua, bando batean zein bestean, izugarria izan zen. Operazio horien berri hainbat kanpainako egunkarik eta parte ofizialek eman zuten, egun haietako gerra-mugimenduak zehatz-mehatz jaso baitzituzten. Zenbaitetan, txosten ofizial errepublikanoak eta frankistak ez ziren bat etorri.

Parte frankisten arabera, Arecesko herrigunea soldadu errepublikanoek hartu zuten otsailaren 22an, arratsaldeko 7etan, eta posizio hori defendatzen ari zen soldadu talde frankista atzera egitera behartu zuten l'Encineu arte, Santullanorako norabidean. Hurrengo eguneko eguerdian, frankistek Arecesko posizioa berreskuratu zuten. Arecesko sektorean "gorriei eragindako hildakoen" laburpenean "200 gorpu" aipatzen ziren, frankistek berek hobiratu zituztenak, otsailaren 23ko data zuen partearen arabera. Iparraldeko Armadako Estatu Nagusi frankistan hurrengo egunean jaso zuten telegrama batean, baieztatu egiten zen indar frankistek *kontraerasoa egin zietela Bolgues eta Ania-Premoñotik, atzera egitea moztuz, eta iheslariak Nalón ibaira salto egiten zutela ikusiz. Borroka horretan, 400 gorpu bildu dira*. Kopuru hori, argi eta garbi, gehiegizkoa da.

Asturiasko kanpaina martxoaren erdialdera arte luzatu zen. Martxoaren 14ko egunsentian, *Amayur* batailoiak obeditzeari uko egin zion, eta ez zen Pandoko posiziorantz abiatu, Oviedorantz aurrera egitea jadanik baztertu zuten soldadu errepublikanoen atzera egite orokorraren barruan. Martxoaren 17an, Asturiasko kanpaina behin betiko amaitu zen soldadu errepublikanoentzat. Egun hartan bertan, *Euzko Gudarosteko* Jose Maria Korta kapilau-burua hil zen, Trubiatik Oviedora bidean oinez

Al día siguiente entraron en escena las compañías enviadas por UGT, PNV y ANV, en una operación que consistía en cruzar el río Nalón para sorprender al enemigo atrincherado en Areces. Pero llegada la hora, hubo errores en la coordinación, entre ellos la ausencia de un puente provisional sobre el Nalón que, a la postre, originaría la tragedia. Después de una fuerte discusión, la brigada vasca echó a suertes quien cruzaría la posición, correspondiendo a los de *Euzko Indarra*, que lo hicieron por turnos en una improvisada gabarra.

Las fuerzas franquistas esperaban el pase del río Nalón, por lo que la travesía de los del *Euzko Indarra* se convirtió en una *ratonera*. Decenas de milicianos de ANV quedaron atrapados por el fuego cruzado, muriendo en la intentona. Aún así, la posición de Areces fue tomada por *Euzko Indarra*, acompañado del *Amayur*, aunque por poco tiempo, ya que las compañías franquistas la recuperarían, provocando una de las situaciones más temidas en una batalla: la retirada desordenada, en esta ocasión de los milicianos vascos. En estas circunstancias perdió la vida Cándido Saset.

El 22 la brigada vasca ocupaba Valduno y avanzaron sobre San Claudio, produciéndose los combates más encarnizados de esta campaña. Las bajas, en uno y otro bando, fueron enormes. Las operaciones fueron recogidas en diversos diarios de campaña y partes oficiales que desgranaron los movimientos bélicos de esos días. En ocasiones, los informes oficiales republicanos difirieron de los franquistas.

Según los partes franquistas, el núcleo de Areces, fue tomado por las tropas republicanas a las 7 de la tarde del 22 de febrero obligando a replegarse a la guarnición franquista que defendía esa posición hasta l'Encineu, en dirección a Santullano. Al mediodía del día siguiente, los franquistas recuperaron la posición de Areces. El resumen de las "bajas hechas a los rojos" en el sector de Areces ascendía a "200 cadáveres", enterrados por los propios franquistas, según el parte fechado el 23 de febrero. En un telegrama recibido en el Estado Mayor franquista del Ejército del Norte el día siguiente, se afirmaba que las fuerzas franquistas "*contraatacaron desde Bolgues y Ania-Premoñó cortando la retirada viéndose a fugitivos arrojar al Nalón. Se han recogido en este episodio 400 cadáveres*". Una cifra a todas luces exagerada.

La campaña de Asturias se prolongó hasta mediados del mes de marzo. En la madrugada del 14 de ese mes se produjo la insubordinación del batallón *Amayur*, que se negó a desplazarse a la posición del Pando, dentro de un retroceso generalizado de las tropas republicanas que ya habían abandonado el avance sobre Oviedo. El 17 de marzo la campaña de Asturias terminaba definitivamente para las tropas republicanas. En esa misma jornada fallecía el jefe de capellanes del *Euzko Gudarostea*, José María Korta, al recibir una bala de fusil cuando caminaba por la carretera de Trubia a Oviedo. Sus funerales en Bilbao fueron multitudinarios.

zihoala fusil-bala batek jo zuenean. Bilbon egin zizkieten hileta-elizkizunak oso jendetsuak izan ziren.

Euskal armadak –batailo santanderar eta asturiarrekin batera eta leku berean borrokaturik– izan zuen porrot militar horren ondorioz, eztabidak sortu ziren berriro ere Gobernu autonomoaren Lehendakartzaren eta Valentziako Gobernuaren artean. Espainia errepublikanoko hiriburura igorritako telegraman, Agirre lehendakariak hauxe zioen: “Oviedoren aurkako erasoak porrot. Erantzukizuna osorik Iparraldeko Armadako Estatu Nagusiarena eta Valentziako Gobernuarena da, hala bai-mendu badu”.

Giza ikuspegitik, Asturiasko kanpaina itzulerarik gabeko esperientzia izan zen ehunka miliziano euskaldunentzat. Ia heriotza guztiak otsailaren 21etik 25era bitartean gertatu ziren, hau da, funtsean, Nalón ibaian egingako operazioaren emaitza izan ziren. Hildako gehienak *Euzko Indarra* batailoikoak ziren. Batailoian sarraskia gertatu zen, baina hori ez zen eragozpenik izan Bilbora itzuli bezain laster berriro ere frontera bidaltzeko, Otxandiora, hain zuzen ere. Asturiasen, ANVk soldaduen % 34 galdu zuen, hildakoak eta zaurituak zenbatuta, horien artean Ramon Azurmendi kapitaina.

Egun haietan Bigarren Brigadan gertatutako hildakoei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzak 1936an sortu zuen Kanpainan hildakoen Erregistro Nagusian aurki daiteke. Helburua zen gerra-fronte guztietan hil ziren euskal borrokalari guztiak zentralizatzea, senideei pentsioak ordaintzeko. Heriotza-parteetan oinarrituta (gaur egun, Bizkaiko Artxibo Historiko Probintzian gordailuturik), ikus daiteke 21etik 23ra bitartean heriotza ugari gertatu zirela Asturiasko alderdi horretan. Batzuk Nalón ibaian itota hil ziren, beste batzuk Trubiako ospitalean hil ziren, hildako batzuk Bizkaira eramane ziren, Derioko eta Gernikako hilerrietan ehortzi zirenak, eta hildako asko non dauden ez dakigu. Azken horien zerrenda gehitu dugu 2. eranskinean.

Este fracaso militar del Ejército vasco, esta vez compartiendo escenario con batallones santanderinos y asturianos, provocó nuevas disputas entre la presidencia del Gobierno autónomo y el de Valencia. En telegrama enviado por el lehendakari Aguirre a la capital de la España republicana señalaba: “Fracasada ofensiva sobre Oviedo responsabilidad recae íntegra sobre mando y estado mayor de Ejército del Norte y sobre Gobierno de Valencia si la ha autorizado”.

En el aspecto humano, la campaña de Asturias fue una experiencia sin retorno para cientos de milicianos vascos. Casi la totalidad de las bajas se produjeron entre los días 21 y 25 de febrero, lo que no fue sino el resultado de la operación sobre el río Nalón. Entre los fallecidos la mayoría pertenecía a *Euzko Indarra*, cuyo batallón quedó diezmado, lo que no fue óbice para que justo al volver a Bilbao fuera enviado de nuevo al frente, esta vez a Otxandio. En Asturias ANV perdió, entre muertos y heridos, el 34% de sus efectivos, entre ellos a su capitán Ramón Azurmendi.

Sobre las bajas habidas en la Segunda Brigada durante esos días existe información en el “Registro Central de fallecidos en campaña” que el Gobierno vasco creó en 1936. Su cometido era el de centralizar todas las bajas de combatientes vascos en los frentes de guerra para pagar pensiones a sus allegados. A partir de los partes de fallecimiento (hoy depositados en el Archivo Histórico Provincial de Bizkaia) se observa que entre los días 21 y 23 hubo un gran número de fallecimientos en ese sector asturiano. Hubo muertes por ahogamiento en el Nalón, fallecidos en el hospital de Trubia, muertos evacuados a Bizkaia que fueron enterrados en los cementerios de Derio y Gernika, y un importante número del que no se conoce su paradero y cuyo listado adjuntamos en el anexo nº 2.

Akerketa historikoa

2006ko abuztuaren 26an, Jose Ramon Emparanek eta Sasetaren Aldeko Elkarteko beste kide batzuek aurretiaz egindako ikerketa eta bisiten ondorioz –aurreko urteetan, Elkartek ekintza batzuk antolatu baitzituen 1936an Euzko Gudarostea sortu zuen eta bertako buru izan zen Candido Sasetaren omenez–, pertsona multzo batek, Aranzadi Zientzia Elkarteko kide batzuk tartean, Asturiasko Regueras kontzejura bidaiatu zuen.

Bisitaren helburua zen hobi komun bat ahalik eta zehaztasunik handienaz aurkitzea –bertan, 1937ko otsail-leko euskal espedizioan parte hartu zutenen 80tik 100era

La investigación histórica

El 26 de agosto de 2006, como consecuencia de las investigaciones y visitas realizadas previamente por José Ramón Emparan y otros miembros de la Sasetaren Aldeko Elkartea, que había realizado en los años precedentes actos para honrar a Cándido Saseta, jefe y fundador del Euzko Gudarostea en 1936, un grupo de personas, entre ellos miembros de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, se desplazó al concejo de Las Regueras, en Asturias.

El objeto de la visita se centraba en localizar, con la mayor exactitud posible, una fosa común que

arteko gorpu ustez ehortzita baitzeuden-, eta euskal zutabeetako arduradun izan ziren eta borroka haietan hil ziren Candido Sasetarekin, Benito Reolarekin eta Ramon Azurmendirekin zerikusia zuten beste informazio batzuk lortzea. Hildakoei buruzko iturriak gerraren garaiko hainbat argitalpenetan zeuden.

Bisita egiteko dataren inguruan, asturiar Udaleko funtzionarioek ere uste zuten 80tik 100era bitarteko gorpu hobiratuta zeudela Arecesko jauregiko lursailetan, horretarako ziur aski hiru zanga erabili zirelarik. Ehorzketa-lekuari buruzko baieztapenak Santullanoko Udaleko aguazilak egin zituen.

Lehenengo ikerketa hori egin zen bitartean, taldea harremanetan jarri zen Maria Rosa Rodríguez Fernández Reguerasko Kultura Elkarteko lehendakari eta autoeditatutako liburu baten egilearekin (*A mi tocame la guerra*, 2003. Reguerasko herritarrek gerra zibilari buruz emandako 35 testigantza jasotzen dituen). Horrez gain, Arecesera joan zirenek elkarriketak egin zituzten 1937ko otsaileko ehorzketen lekuko izan ziren bi gizonekin: Ramón Valdés eta Arturo Suárez Miranda. Halaber, José Aurelio Sanz Muñiz Arecesko jauregiaren jabearekin harremanean jarri ziren.

Ramón Valdésekin aditzera eman zuen 1937ko otsailaren 21etik 23ra arte izandako borroketan hil ziren euskaldunak 20 eta 30 bitartekoak izan zirela, eta ehortzita (edo gaizki ehortzita) geratu zirela gehienak, Premoñotik gora Arecesera zihoazen bideetan. Ramónek berak laguntza eman zuen hildako batzuei beren tresnak kendu eta lur emateko. Adierazi zuen, halaber, egun haietako zaurituak (80 inguru) Arecesko jauregia izenekoan geratu zirela, eta ustekabeen harrapatu zituztela tertzio frankista batek eta marokoar erregularraren batailoi batek, eta denak hil zituztela, gehienak baionetaz. Jauregiko lursaillean bertan hobiratuak izan ziren, usoentzako etxetxo baten ondoan, sigi-sagan zulatutako lubaki batean.

Hildakoak herriko bizilagunek ehortzi zituzten, eta ez militarrek, eta horregatik, eragina izugarria izan zen kontzejuaren oroimenean. Valdésekin ukatu zuen zangen inguruko bertsioa, Santullanoko aguazilak kontatua, eta, aitzitik, baieztatu zuen bailaran oso zabaldua zegoen bertsio herrikoa: hildakoak ziur aski ehortzita zeuden eremua "*Pradón de los vascos*" izenaz ezaguna zen. Eremu horretan, goldatzean, *hezurak irteten ziren*. Horregatik erabili zen bazkaleku bezala.

Valdésen informazioa erabakigarria izan zen "Saseta komandantea" ehortzia izan zen hobiaren kokalekua aurkitzeko. Erreferentzia sail baterako sarbidea zen, eta haritz zahar baten motzondoa. Lursaila ohiko pasabidea zen, eta lekukoak gehitu zuen ordudanik ez zela bertan obrarik egin, lokatz handia ez pilatzeko bota ziren harriak kenduta. Ehorzketa-lekua *denek ezagutzen zuten gauza zen*. Sasetaren identifikazioa, Valdésen aburuz, oso erraza zen, *uniforme militarra zeraman bakarra zelako*.

debería albergar entre 80 y 100 cadáveres de la que fue expedición vasca de febrero de 1937, así como recabar otras informaciones relacionadas con Cándido Saseta, Benito Reola y Ramón Azurmendi, responsables de la columna vasca y muertos en aquellos combates. Las fuentes sobre los fallecidos se encontraban en diversas publicaciones de la época.

En fechas cercanas a la visita, funcionarios del Ayuntamiento asturiano apuntaban igualmente que entre 80 y 100 cadáveres estaban enterrados en terrenos del Palacio de Areces, aprovechando probablemente tres cárcavas. Las afirmaciones sobre el lugar de enterramiento fueron hechas por el alguacil del Ayuntamiento de Santullano.

Durante esta primera investigación, este grupo mantuvo un encuentro con María Rosa Rodríguez Fernández, presidenta de la Asociación Cultural de Las Regueras y autora de un libro autoeditado (*A mi tocame la guerra*, 2003) con 35 testimonios de vecinos de Las Regueras sobre la guerra civil. Asimismo, los desplazados a Areces mantuvieron entrevistas con dos testigos de los enterramientos de febrero de 1937: Ramón Valdés y Arturo Suárez Miranda. También se mantuvo contacto con José Aurelio Sanz Muñiz, propietario del Palacio de Areces

Ramón Valdés manifestó que los vascos muertos en combate entre el 21-23 de febrero de 1937 fueron entre 20 y 30 y quedaron enterrados (o mal enterrados) en su mayoría en los caminos que subían de Premoño a Areces. Él mismo ayudó a enterrar y a despojar de sus enseres a algunos de los muertos. También añadió que los heridos de esos días (unos 80) quedaron en el llamado Palacio de Areces y fueron copados por un tercio franquista y un batallón de regulares marroquíes que los mataron en la mayoría de los casos a la bayoneta. Fueron enterrados en terreno del mismo Palacio junto a una casa para palomas, en una trinchera cavada en zigzag.

Los fallecidos fueron enterrados por los vecinos del pueblo y no por los militares, por lo que el impacto en la memoria del concejo fue enorme. Valdés negó la versión de las cárcavas, hechas por el alguacil de Santullano, y confirmó, en cambio, una versión popular extendida en el valle: a la zona donde probablemente estaban enterrados los fallecidos se le conocía con el nombre de "*El pradón de los vascos*". Un lugar en el que al arar "*salían huesos*". Por ello fue destinado como lugar de pasto.

La información de Valdés fue determinante para localizar la ubicación de la fosa donde fue enterrado el "comandante Saseta". La referencia era la entrada a una heredad y el tocón de un antiguo roble. El terreno era de paso común, y el testigo añadía que no había recibido obra alguna desde entonces, excepto piedras que fueron arrojadas para evitar la cantidad de barro que se acumulaba. El enterramiento era "*de dominio público*". La identificación de Saseta para Valdés era sencilla, "*porque era el único que llevaba uniforme militar*".

Aurelio Sanz Muñizek adierazi zuen Arecesko Jauregia –pazo bat, garaia, kapera, usategia, etxea eta lursailak zituen– Muñiz familiak erosi ziola 1917an Bernal de Quirosi, eta azken horrek bigarren karlistadaren ondoren erosiko zuela. Amak bere lurretan ehorzketak lekurik zegoela ukatzen zuela kontatu zuen. Ikerketan laguntzeko prest azaldu zen argi eta garbi, eta bere lurrak lagatzeko, indusketa egin behar izanez gero.

Testigantzak bildu ondoren, eta ikerketa historikoaren alderdi batzuetan aurreratzen ari zenez gero, Aranzadi Zientzia Elkarteak ageriko txosten bat idatzi zuen (2006-8-28), eragindakoei hurrengo egunetan helarazi ziena. Zientzia elkarte bera izan zen, ikerketekin aurrera jarraitzeko interesa izanik, Condor Georadar enpresari Pradón de los Vascos izeneko eremuan GPR azterketa bat eta argazki infragorria egiteko enkargua egin ziona.

Enpresak “Pradón” izenekoari buruz ateratako ondorioak 2008ko martxoan argitaratu ziren. Jarraian jaso ditugunak dira: *Georadarraren bidez egindako azterketa geofisikoaren ondorioz, irregulartasun magnetikoak hauteman eta kokatu dira, lubakiei lotuta, aztertutako eremuko bi gunetan, eta, hortaz, elkarrizketatutako lekukoak testigantzak baietsi egin dira. Lursaila oso aldatuta dago, ganadu ugari (behiak) egoten den zelai biguna delako, eta lubakien definizioa oso islapen ahulekoa da. Aztertutako zanga (gehiago ere badaude) jatorri geologikoa da, ziur aski zorupean urak higatutako lurrak jaustearen ondorioz; hala ere, zorupean elementu trinko ez geologikoak hauteman dira, hemen izandako gertaera historikoekin zerikusia izan lezaketenak, eta gaur egun material osteologikoa egoteari lotutako islapenak aurkitu dira (ez da ezinbestez lotuta egon behar 1937an gertatutakoari bakarrik, abeltzaintzako ustategia delako). Laburbilduta, badirudi horrek guztiak aditzera ematen duela bertakoak testigantzak egiazkoak direla; izan ere, horien hitzetan, dozenaka gudari gazte lubaki horietan ehortziak izan ziren, Saseta komandantearen agindupean borrokan ari zirenean, eta hemen gelditu dira ahaztuta, gertatutakoa adierazten duen plakarik gabe, eta hobe ateratzeko zain, bidezkoa den bezala.*

Cándido Sasetaren gorpuzkia berreskuratzea

Testigantzak bildu, txostena idatzi eta georadarrez egindako azterlana burutu eta gero, lehenengo indusketa egin zen, Cándido Saseta Etxeberriaren senideak bertan zeudela. Giza gorpuzkiak aurkitu eta lurpetik atera ziren, eta, aurkitutako objektu pertsonalekin batera, Aranzadi Zientzia Elkartera eta Euskal Herriko Unibertsitatara –Donostia– eramane ziren.

Aurelio Sanz Muñiz apuntó que el Palacio de Areces, un pazo, con hórreo, capilla, palomar, la casa y terrenos, fueron comprados por la familia Muñiz en 1917 a Bernal de Quirós quien los habría adquirido tras la Segunda Guerra carlista. Relató que su madre negaba que hubiera enterramientos en su terreno. Se mostró abiertamente dispuesto a colaborar con la investigación y a ceder sus terrenos ante una hipotética excavación.

Recogidos los testimonios, y avanzando en algunos aspectos de la investigación histórica, la Sociedad de Ciencias Aranzadi realizó un informe público (28.8.2006) que trasladó a los afectados en los días siguientes. Fue la misma Sociedad de Ciencias la que, en el interés de proseguir en las pesquisas, encargó un análisis por GPR y fotografía infrarroja a la empresa Condor Georadar que efectuó en los terrenos del llamado Pradón de los Vascos.

Sus conclusiones sobre el llamado Pradón, publicadas en marzo de 2008, fueron las siguientes: *“La prospección geofísica mediante georadar detecta y posiciona anomalías magnéticas asociables a trincheras en dos puntos del área analizada, por lo que confirma los testimonios de los testigos entrevistados. El terreno se encuentra muy alterado por ser prado blando con multitud de ganado (vacas) y la definición de las trincheras es de reflexiones muy leves. La cárcava analizada (existen otras) es de origen geológico posiblemente por hundimiento del terreno erosionado en el subsuelo por agua, pero se detectan en su subsuelo elementos densos no geológicos que pudieran estar relacionados con los hechos históricos aquí sucedidos, e incluso presenta reflexiones asociables a la existencia actual de material osteológico (no necesariamente relacionado en exclusiva con lo sucedido en 1937, ya que es un establecimiento ganadero). En resumen, todo parece indicar la verosimilitud de los testimonios de los lugareños, los cuales indican que varias decenas de jóvenes gudaris fueron enterrados en estas trincheras, cuando luchaban bajo el mando del Comandante Saseta y permanecen aquí olvidados, sin ninguna placa que indique lo sucedido, y esperando una justa exhumación”.*

La recuperación de los restos de Cándido Saseta

